



Honako idazkia bilhon bera tramitatorako  
..... Sallora  
Pasa el presente escrito al Negociado de  
..... *Secretaria* para su trámite  
*Alcalde*  
LASARTE-ORIA .....  
IDAZKARI OROKORRAK

## USURBIL-LASARTE-ORIA-OSPITALEA LOTZEN DITUEN T2 AUTOBUSEN ZERBITZUAN MURRIZKETAK EZ EGITEAREN ALDEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Azkenengo hilabeteetan ikusi dugu Foru Aldundiak murrizketak egin dituela Astigarraga-Ospitalea-Unibertsitatea-Donostia lotzen dituen A3 zerbitzuan. A3 zerbitzua kendu izan da, zehazki, desagertu da. Horren ondorioz, Donostia inguruan dauden herrietan kezka bat sortu da Ospitalea eta herrien arteko zerbitzuen murrizketak direla eta; eta, oro har, aipatutako kezka Gipuzkoa osora zabaldu da beste zerbitzuen kasuetan, Tolosaldean edo Zestoa-Ermua lotzen dituen UK 05 zerbitzuan kasu.

Gure kasuan, Usurbil-Lasarte-Oria-Ospitalea lotzen dituen T2 zerbitzuari dagokio kezka, sare sozialetan, auzo elkarteetan, sindikatu eta herritarren artean zabaldu dena. Zehazki, ordutegietan proposatzen dira murrizketak, ospitaleko langileen sarrera-irteeren ordutegietako zerbitzuak mantenduz eta besteak ezabatuz, herritar arruntarengan eragin eta kalte handiena sortzen duten ordutegietan, hain zuzen: adina dela, eritasuna dela edota bertan aparkatzeko dauden zailtasunak direla medio, inorentzat ez da gustukoa ospitalerako bidaia. Zentzu honetan, ezinbesteko zerbitzua betetzen du Ospitaleko autobus lineak. Ahaztu gabe, bestaldefik, ordutegi murrizketa horrek suposatuko lukeen bi lanpostuen galera.

Aldundiatik, Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Foru Diputatuak legealdiaren hasieratik esan du Garraio Publikoaren zerbitzuaren egokitzapenak bultzatuko zituela, zerbitzuak razionalizatuko dituela. Horiek, orain arte, zerbitzu murrizketak izan dira. Foru Aldundiaren jarrera ikusita egokia iruditzen zaigu Lasarte-Oriako Udalak defendatu dezala herrian dauden garraio publikoen zerbitzuak, eta bereziki herria eta ospitaleak lotzen dituenak.

Aurreko guztia kontutan hartuta eta garraio publikoak dakartzan mota guztietako onura ekonomiko, ingurumeneko eta bestelakoak azpimarratuz, Lasarte-Oriako Udal Batzarrak ondoko akordioak hartzen ditu:

1.- Lasarte-Oriako Udalak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari onura soziala eta herritarren beharrak etekin ekonomikoaren gainetik jartzea eta ez dezala murrizketarik egin Lurrealdeko T2 zerbitzuan.

2.- Lasarte-Oriako Udalak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari herritarren parte-hartzearekin diseinatutako Lurrealdeko T2 zerbitzuaren razionalizazioa egin behar izanez gero herritarren parte-hartzearekin egitea.

Lasarte-Orian, 2016ko apirilaren 7an

EH Bildu Udal Taldearen izenean

A handwritten signature in black ink, consisting of several overlapping loops and lines, positioned at the bottom center of the page.